




abaila 'abiada'	«Jack zutitu eta abaila bizian hasi zen mintzatzen...»	(78)
abaro 'babeslekua'	«...hozkirri ttipi bat barreiatu zuten zuhaitzen azpiko abaro hartara.»	(52)
abespeluko 'neurri gabekoa'	«Batzarra sakabanatu eta abespeluko zirriparra bihurtu zen...»	(136)
aburika 'estropozuka, behaztopatuz'	«Erortzearen planta egin zuen. Ipurdia igurtzi eta enbor bihurrian eseri zen, handik belarretara aburika jausiz.»	(129)
aburikatu 'estropozu egin,	«Zuhaitz baten kontra aburikatu zen, azkonetariko bat barrenago sartzen zitzaiola...»	(198)
adiurre 'izaera'	«...boxealari izateko adiurrea balukeela pentsa liteke...»	(14)
agitu 'gertatu'	«Bigarren aldia zuen Ralphek (...) bere balio-irizpideak birdoitu beharra agitzen zitzaioneko.»	(116)
agondu 'lurretik jaiki, zutitu'	«Jack agondu eta hankak luzatu zituen...»	(77)
ahapekari 'marmartia'	«...buru ahapekariak , xuxurlariak, Ralph jakinguraz aztertzen zuten begi zabalez beteriko buruak.»	(26)
ahardi 'zerri emea'	«...bere ama-lilurapean sorgoturik, eliko ahardirik handiena hantxe zetzan.»	(197)
ahatik 'horrexegatik, haxegatik'	«—Nola diakik berak gu hemen gaudena? Ahatik, pentsatu zuen Ralphek, ahatik , ahatik.»	(19)
aieruz 'susmoz, kutsuz'	«Hitz honen aieruz , beroa areagotua zela begitandu zitzaien...»	(19)
aihen lits 'aihen-zati edo flekoak'	«Lehegailu baten antzera egin zuen orduantxe eztanda surtan zuhaitz batek. Aihen-litsak saltatu ziren airera...»	(68)
aiherkunde 'grina bizia'	« Aiherkunder z jaulki zituen hitzok Jackek, madarikazio bat bezala.»	(176)
aintzatespen 'oneritzia, uste ona'	«Ulertu zuenean zenbaterainoko aurrerapena zen hura guztia Ralphek berarengana zeukan aintzatespenaren aldetik, gorritu ere egin zen harrotasunez...»	(206)
aitzi 'kontra, aurka'	«Itzuli eta plataformarantz abiatu zen, eguzkiari aitzi .»	(113)
aiumaka 'kexuz, intzirika'	«Azkenean goian zen Txerri ere, arnasoska eta aiumaka ume baten modura.»	(101)
akiturik 'unaturik, indargeturik'	«Hirurak ere patsetan, zikin eta akiturik zeuden.»	(38)
aldaroka 'balantzaka, aldamenka'	«Une batez aho zabalik geratu zitzaien begira, gero, aldaroka , eseri egin zen.»	(50)
alderrai 'noragabe dabilena'	«Makil-punta batekin —uhinek higaturiko alderrai zuritu bat berau ere...»	(92)
alderraitu 'norabide zehatzik gabe ibili'	«Ralph haitzetarantz alderraitu zen astiro.»	(163)
aldikal 'bakoitzean'	«Gero berriro, haizea baretu aldikal , uhalak laxatu eta dunbuiloa makotu egiten zen berriro...»	(142)
alditsu 'apetatsu, aldakor'	«Han goian haizexka alditsu zebilen...»	(142)
aloz 'tolesa, izurra'	«...zeinen zurrun zeuden alozak , kartoia bezala, eta zeinen gozakaitz...»	(114)




aloztu 'tolesturak egin'	«Kapa beltz batzuk (...) idun aldean anoki farfaildu batez alozturik zeudenek...»	(27)
altxuma 'kimua, landare gaztea'	«Haien azpiko lurra belar lakarrez estalitako ezponda bat zen (...) koko ustelez eta palmondo- altxumaz zipristindua.»	(13)
andeatu 'itxuragabetua, hondatua'	«Simonek bere atzera begiratu zuen, hantxe eserita zetzan gauza andeatu eta sundatsu urrikalgarriari.»	(216)
andua 'zuhaitz ebakiaren enbor zatia'	«Laster berragertu zitzaizkion begien bistara andua zuri printzatuak...»	(282)
anoa 'janaria'	«Hasia zegoen, beraz, oturuntza, eta hura zaindariaren anoa izaki.»	(268)
anoki 'jazki baten iduna'	«Kapa beltz batzuk (...) idun aldean anoki farfaildu batez alozturik zeudenek...»	(27)
apodera 'sumina, haserre bizia'	«Lehertu zen Ralphen apodera . Jacki garrasi...»	(262)
ardora 'uraren isla edo distira'	«Aintziraren ertza, itsas goraren uhinkada bakoitzeko, aldiari aldiro lehorreragotuz zetorren ardorazko lerroa zen.»	(225)
argi turrusta 'argi-jauzi edo txorroa'	«Eguerdi-irian, argi turrustak ia ezin zutago erortzen zirela...»	(87)
arnasberritu 'indarberritu, arnasa berreskuratu'	«Ralphek, arnasberritu zenean, durrunda labur batzuk egin zituen ostera.»	(24)
arranbela 'arkua, uztaia'	«Palmondoen zapaldatik uretara bitarteko hondartza arranbelaren tankerako zirrinda mehe bat zen, itxuraz amaigabea.»	(13)
arrandikiro 'handikeriaz, harrokeriaz'	«Hiru mutilak aurrerantz oldartu eta Jackek berriro atera zuen aiztoa zorrotik, arrandikiro .»	(44)
arroil 'bide ertzeko ildo modukoa'	«...beraiek zeuden lekaro soiletik malkor eta arroil batean behera jaitsi eta arroil batean behera jaitsi eta lore-sailetan barrena...»	(42)
artesi 'tartea, arrakala'	«—Landatu alde bata lurrean (...) Hortxe, artesi horretan. Bale.»	(201)
atalase 'ataria; sarrera eta hasiera'	«Eguzkia urre gorizko zintzilikario bat zen mendebaldera, munduaren atalasera gero eta hurbilago lerratzen ari.»	(63)
atezatu 'atezuan, tentsioan dagoena'	«...besoa luzatu zuen ostertzeko alanbre atezaturantz ...»	(62)
atxiki 'eutsi, mantendu'	«Ez diagu sekula surik biztuta atxikiko .»	(136)
aurpegi orraze 'aurpegiko ezaugarriak'	«...bai baitzirudien aski larruazalez hornitu gabeak zirela, halako moldez non haien aurpegi-orrazeak lanbrotsuak baitziren...»	(26)
ausiabartu 'suntsitua'	«Iritsi zen frutondoan sail ausiabartura eta lehiatzen zuten.»	(269)
azantza 'astrapala, burundara'	«Mutikoaren ondora erori ziren denak, azantza gaitza sortuz, baina hura ikutu gabe.»	(93)
azartu 'erabakia hartua'	«Txerrik azartua zirudien, eta galtzak erantzteari ekin zion.»	(17)
azi-orraziak 'gorabeherak, ekintzak'	«Bertan geratu zen Jack zutik, izerdi-patsetan, buztin nabarrez marrakatua, ehize-egun hartako azi-orrazi guztiek mazkildua.»	(73)
azkoskoak 'hatz-junturetako hezurtxo	«Ralphek harriaren kontra ukabilez jo eta azkoskoak lahardekatu zituen.»	(160)
aztarrika 'induskatuz, azterka'	«...behatz batez aztarrika hasi zen zoruko belar lakar hartan.»	(51)




baizadi 'uretako azal-azaleko harkaitza'	«Hau irla bat duk, nik uste. Eta horko zer hori, itsasoan barneratzen dena, baizadi bat.»	(10)
baldoki 'lokoa, giltza'	«Simonen eskuineko baldokian , taupadaka zerauntsan odolak garunari.»	(203)
balinbetan 'agian'	« Baldinbetan , hosto horietako batzuk beste batzuk baino egokiagoak izan behar dute horretarako.»	(192)
bapestean 'konfidantzaz, lainoki	«—Berdin zaidak nola deitzen didaten —esan zuen bapestean —, eskolan deitzen zidaten bezala ez izatekotan.»	(15)
barano 'ingurua'	«Ondoren, dena delako hura lausoaren baranotik hondar-alde argiraino aitzineratu eta denek ikusi zuten...»	(27)
barrendan 'zelatan'	«Zerbait barrendan ote zegokienaren barne-zimikoa sentitu zuelako...»	(149)
begirakune 'begirada zorrotza'	«Buru kiriketan atera zuen harkaitz-erpinaren atzetik eta Jacki begirakunea bota bere lente dizdizari bakarretik...»	(107)
begoetsi 'astiro eta arretaz begiratzuz'	«... begietsi zituen sudur-hezur zuriak, hortzak, ustelduraren nabardurak.»	(215)
behako 'begirada'	«...Jackek, behako hura somatzean, azalpenak emateari ekin...»	(33)
bekoz beko 'aurrez aurre'	«Ralphek uretatik irten, Txerriri bekoz beko jarri, eta ustegabeko arazo hartaz pentsatzeari ekin zion.»	(19)
beltzuri 'bekoskoa, bekoki zimurrez'	«Hantxe, hondartza ertzean egon zen luzaroan (...) hondar-meta bati beltzuriz begira.»	(82)
beluritu 'zurbildu'	«Beronen begi txitxilduak pertsona helduen zinismo mugagabeaz beluriturik zeuden.»	(202)
benatsu 'serioa, benazkoa'	«Zurumurrua; eta buru-baieztapen benatsuak .»	(53)
berbaro 'berbotsa, hitz-hotsa'	« Berbaroa , erdi algara erdi iseka, sortu zen eseritako mutilen artean.»	(125)
beredin 'anitz, asko'	«Zerra baten beredin hortz mehe bailiren...»	(92)
bermatu 'zerbaitek eusten diola jarri'	«Ralph zuhaitz baten kontra bermatu ...»	(165)
beteritsu 'bekartsua, piztatsua'	«Txerri betaurrekoak galtzetan igurzten ari eta itsasora so beteritsu .»	(98)
betikara 'begien itxi-ireki azkarrak'	«Lenteak kendu eta Ralphi luzatu zizkion, betikaraz eta irribarrez...»	(12)
betoskola 'bekainen inguruko bekoki atala'	«Jackek hankak tolestatu, belauak besarkatu eta betoskola zimurtu zuen, argitasuna atzemateko ahaleginetan-edo...»	(78)
bilbatu 'gurutzatu, elkargainka jarri'	«Zuhaitzen enborrak eta berauen aihen estalgarriak ganga berde ilun batean bilbatzen ziren han goian...»	(71)
bilur 'begizta, lakioa'	«Aihen- bilurak aldebanatu eta...»	(214)
binbilika 'ezker-eskuin kolpeka jausiz'	«Harkaitzarra ezbaian geratu zen (...) eta airean mugitu eta amildu zen, tupustuka, binbilika , jauzika, burrunbaka...»	(39)
birdoitu 'birregokitu, birmoldatu'	«Bigarren aldia zuen Ralphek (...) bere balio-irizpideak birdoitu beharra agitzen zitzaioneko.»	(116)
burduntzitu 'zotz batez zeharkatu'	«Azkenean, haragi zatiak adaskatan burduntzitu eta sugarretara inguratu zituzten...»	(109)




burgoitu 'adoretu, kuraiatu, harrotu'	«—Sentitzen diat. Suarena. Ulertzen diat. Zera. Nik...— burgoitu zen—: barkazioa eskatzen dut.»	(107)
danbalaka 'kolpe sendoak emanez'	«Hostoak adarretik banandu eta danbalaka jausi ziren lurreraino.»	(74)
desarratu 'bete-bete eman edo jo'	«Mutila belaunikatu eta eguzki-izpiaren gezia desarratu zen haren gainera.»	(195)
desgogara 'gogoz kontra'	«Geroxeago, desgogara baina Txerrik ere altxatu zuen berea.»	(32)
deslai 'utzia, bakartia'	«—Hau gehiegizkoa duk, mutiko, ene mutiko deslai gaxoa.»	(211)
destatu 'apuntatu'	«Roger makurtu, harri bat hartu, destatu eta Henryrenganantz jaurtiki zuen, huts egin asmoz jaurtiki ere.»	(93)
dranbalada 'haizeak eragindako oihal-hotsa'	«...han zerbait higitzen zela ikusi ahal izan zuen, hots, oihal urdin baten dranbalada ...»	(215)
dunbuilo 'multzo edo talde nahasia'	«...laster nahaspilatu ziren erdi-itzalgunen hartan, dunbuilo zorionsu eta zalapartari bat eratuz.»	(38)
durduzatu 'asaldatu, gogo nahasi'	«Hots hurbilago batek durduzatu zuen.»	(272)
durundiatu 'oihartzundu'	«Nota sakon eta latza durundiatu zen palmondoen azpikaldetik...»	(23)
egonarri 'pairamena, eroapena'	«Txerrik halako egonarri apal batez jasan zuen purrustada...»	(18)
eiki 'egiazki'	«...ilea atzekalderantz lotuta zeukaten, Ralphek berea baino askoz ere modu erosoagoan eiki .»	(256)
ekurugaitz 'urduri, artega'	«...Ralphek zeharka eta ekurugaitz begiratu zion...»	(153)
eldarnio 'sukar-ametsa (irudizko	«... eldarniozko zirkulu osoa aldarrika eta txerri hil-hurrenaren kurrinkak eginez.»	(169)
eli 'taldea, aldra'	«...bere ama-lilurapean sorgoturik, eliko ahardirik handiena hantxe zetzan.»	(197)
elika-zun 'elika bila, janari bila'	«...baziren halako xomorro batzuk, urarekin batera hondar berotara elika-zun lehorreraturiko transparentzia nimoño batzuk.»	(91)
epaixka 'isilka eta ezkutuka'	«Txerri eta Simon ondotik jarraitu zitzaizkion, baita gainerako mutilak ere geroxeago epaixka .»	(147)
epelak eman 'astindu, jipoitu'	«—Bati epelak eman zizkioat...»	(245)
eragabekeria 'neurritz kanpoko egintza'	«Gero, zakur baten gisa, zirrin-zarran lauroinka, bere eragabekeriari oraindik soraio ordea...»	(71)
eragoion (adizkia) 'ekiten zion'	«Hostozko oihalaren bestaldean eguzkiak gogor eragoion ...»	(195)
erakan 'airean geldituz, planeatuz'	«Uhartearen gainean erakan , etengabe lauskitzen, etengabe jariaten zuten sargori itsu itogarri hura.»	(203)
erakori 'altxatu, jaiki'	«Txerri ere erakori zen goraino nola-hala, bere jazki gehienak galtzarbean garraio.»	(19)
----erasan 'eraso, ekin'	«Gelditu egin zen, erasan nahirik.»	(50)
erasi 'esan, hitz egin'	«Elkarrekin "bat! bi! hiru!" goraki erasi eta danba bota zuten enborra meta handi hartara.»	(58)




erasian 'murmurikatzen'	«Elkarri begiratu zioten, gogotik barre eginez, elkarri erasian , elkar entzun gabe.»	(35)
eraspentsu 'deboziozkoa'	«...mutiko haiek bi ilara eraspentsutan lerrokatu ohi ziren eta beren ahotsak aingeruenak omen.»	(196)
eratzeki 'erantsi'	«Haizeak berriro orrore oihanean, eta mutilen jantzi zarpailduak beraien soinetara eratzeki .»	(180)
erauskin 'kondar multzoa'	«Bi etxola zeuden eginak, koloka bada ere. Hirugarren hura, berriz, erauskin hutsa.»	(74)
ereti 'unea, okasioa'	« Ereti batez, basoak eta ozta-ozta nabari zitezkeen gainerako leku gandutuek ere barre isekari beraz oihartzun zegitela zirudien.»	(211)
erkin 'ahula, argala'	«...palmondo erkin bakanak flotatzen hasten ziren zerurantz...»	(87)
erlaitz 'goi ertza'	«Txerri harkaitzaren erlaitzean eseri eta...»	(17)
erlantz 'dirdira, distira'	«Haiek zeharkatu ondoren, itsasoko erlantza bistaratu eta ahotsak entzun zituen.»	(73)
erredola 'ezkutua, babesgailua'	«Irlaren bestaldean (...) aintzira barearen erredolaz babesturik, batek amets egin baitzezakeen erreskateaz...»	(164)
erremuskada 'purrustada'	«Lantza jaso, hortz artean erremuskada egin, eta zain geratu zen.»	(283)
errezel 'oihalezko pieza, kortina'	«Aihenezko errezelean etzanda egon zen luzarotan...»	(214)
erroitz 'amildegia'	«...lore-soberakin hura erroitzetik behera zintzilikatu eta naharoki isurtzen (...) zen oihan-gangaraino.»	(40)
eskantiturik 'mugitu ezinik'	« Eskantiturik , batak besteari besotik helduta, hantxe geratu ziren...»	(145)
eskarniatu 'imitatu, antzeztu'	«Begiak txitxilduta, bazirudien taketeko gauza lizun haren antzirudia eskarniatzen ari zela.»	(211)
ezponda 'aldapan dagoen lur-zatia'	«Haien azpiko lurra belar lakarrez estalitako ezponda bat zen...»	(13)
farfaildurik 'nabarmenki apaindurik'	«Itsasertza palmondoz farfaildurik ageri zen.»	(13)
farrastan 'bortizki'	«...ostikada zakar banaz jaurtiki zituen oinetako biak, baita galtzerdiak farrastan erantzi ere...»	(13)
firurikatu 'birarazi'	«Lantza firurikatu zuen inguruka burrunbatsuan...»	(261)
gainberotsu 'sargaritsua'	«...ezkututua zen eguzkia eta beronen argiaren ordeztu gainberotsu bat nagusitua.»	(213)
gaitzerizkoa 'gorrotoa, ezinikusia'	«Lore ubel-gorri-hori liluragarri haien erakarmenak berehala urtu zuen mutilen arteko gaitzerizkoa .»	(109)
gaitzitu 'mindu, haserretu'	«Besteak gaitzitu eta oihuka hasi zitzaizkion.»	(64)
gandutu 'lausotu, lainotu'	«Ezpaineak dardar egin zioten eta betaurrekoak lurrinez gandutu ...»	(19)
ganga 'sabai biribildua'	«Hostoek eta keak eraturiko ganga ilunaren azpian, sua jabetua zen oihanaz eta hura marraskatzen hasia.»	(65)
garastatu 'ureztatu'	«...itsas landaretza berriro garastatu ...»	(156)




gaztainkara 'gaztain kolorekoa'	«...buru gaztainkara , horail, beltz, gorriska, hondar —edo xagu— kolorekoak...»	(26)
gelbera 'geldoa, ahula'	«...esan zuen Samek ahots gelberaz .»	(231)
gezaldatu 'urtu'	«...haren gantza nola gezaldatzen eta errauts artean zapartatzen zen begira.»	(268)
gider 'kirtena, eskutokia'	«Narraz zeramatzan azkonen giderrek traba, eta berauen punta zorrotz horzkatuek ziper zeragioten.»	(198)
gilbor 'sabela, tripa'	«Gero makeraren gorpuari ekin eta gilborra arraildu zion...»	(200)
goaitatu 'zelatatu'	«Handik goaitatu eta erpinean oraindik zaindaria bazegoela antzeman ahal izan zuen...»	(271)
gogobetegarri 'erabat gustukoa'	«...mutil ile horail harengan ikusten ari zena bazirudien ez zitzaiola guztiz gogobetegarri .»	(28)
gorrasta 'gorriska'	«Ile gorrasta , hara eroriak zirenean zeukana baino dexente luzeagoa...»	(72)
gozakaitz 'zakarra, latza'	«Behekalde hartan, mendi-hegi gozakaitzean , aurrera zerraien danbor-burrunbak.»	(69)
gurbil 'zuhurra'	«Bat-batean Txerri hitz-totelka hasi zen, asaldura gurbilez ...»	(21)
gurinkara 'krema kolorekoa'	«Ralphek belaunetaraino altxatu zuen maskor zurigorri gurinkara ...»	(47)
hagun 'lerdea, bitsa'	«Arnasa bere oneratu zuen noizbait ere, ahoko haguna xukatu...»	(286)
harkaitz zerro 'harkaitz ilara'	«... harkaitz-zerro bat ere ageri zen, lur azaletik trinko jalgia...»	(83)
harmora 'horma nagusia'	«Harkaitz gehienak harmora zurigorri bana ziren...»	(37)
harrapataka 'arineketa bizian'	«...ihesari eman zitzaizkion harkaitzetan behera harrapataka .»	(146)
harri pikor 'harri koskor, legarra'	«...osin luze sakon bat eratua (...) zen hondartzan, harri-pikor zurigorritzko barradera hura zuela haranzkaldeko muga.»	(17)
hatsanka 'arnasestua'	«Txerriren hatsankak aditu ahal izan ziren berriro.»	(244)
hatsantu 'arnasestuzkoa'	«Makerak karranka hatsantua egin eta halda-maldoka zutitu zen...»	(198)
hazaldi 'belaunaldia'	«...palmondoek, hazaldiz hazaldi bertan sakatuz, lokatuak zituzten (...) hondarren gainean egondako harriak.»	(93)
haztamukatu 'ukimenaren bidez'	«...oineko behatz batez haztamukatu zuen uraren hotz-beroa...»	(17)
hebainduta 'guztiz ahuldua, jipoitua'	«— Hebainduta niagok zeharo. Odoletan ari al nauk?»	(148)
hegabiraka 'haizeak eraginda airean mugitu'	«Aurreratu zen mutila, salto egin zuen plataformara kapa aidean hegabiraka ...»	(27)
hein 'maila'	«...eguzkia gehienez hazbete bat edo bi nabarmentzen zen itsas heinetik gora.»	(68)
heriosuhar 'ahalegin bizian'	«Basurde txiki bat topatu zuten hantxe (...) izu-lauorrian heriosuhar .»	(44)




heriosuhartu 'biziki aztoratu'	«Mundu ezezagun batetik eraso lazgarri hark heriosuhartu zuen animalia...»	(199)
herra 'gorrotoa, ezinikusia'	«Halako herra ezkutu bat dardaratu zen Ralphen ahotsean...»	(76)
herratsu 'gorrotozkoa, herraz betea'	«Buru buru, su eta gar arnaska, oro bultzada eta begirakune herratsu .»	(259)
higatu 'maiztua, gastatua'	«Puntatik, zulo txiki bat eratzeraino higatua berau...»	(22)
hirodura 'egurraren usteldura'	«...hain ustelduta zegoen non heltzen ziotenerako txirtxilatu egiten baitzen ezpal, zeden eta hirodurazko erauntsi batean...»	(57)
hisiatasun 'ekina, seta'	«...honen begirada tinkoaren hisiatasunak beste guztien begiak ere harantz erakartzen zituelarik.»	(27)
hisikatu 'ekin, tematu'	«Txerrik hisikatu : —Gutariko zenbat ote giaudek hemen?»	(20)
hoben 'hutsa, errua'	«...nabaritzen zuen hala ere bere baitan hoben egin izanaren ondoeza.»	(91)
hodei litsak 'hodei harilduak, urratuak'	«Ostertzaren ondoko hodei-litsak zurigorritz distiratzen hasi...»	(147)
horail 'kolore argiko ilea duena'	«Mutil horailak harkaitzaren azkeneko metroak zirristaka jaitsi eta aintzira alderako bidea urratzeari ekin zion.»	(9)
horiztada 'horiunea'	«Itsas gainera hedatzen ari zen horiztada seinalatuz...»	(184)
hostaila 'hosto-abarren multzoa'	«...goiko hostailetik alerik bikainenak bilduz...»	(83)
ibiturik 'gutxiturik, indarra galdurik'	«Txerriren boza, ibiturik baina iritsi zitzaien hala ere...»	(183)
ihardoki eztabaidatu	«Baina Jackek garrasika ihardoki : —Kaka zaharra arauentzat! Indartsuak gaituk...!»	(136)
iharrosi 'astindu, inarrosi'	«Urraduraren ertzeko sastraka iharrosi eta euri-tanta ugari erori zen lurrera xaplaka.»	(9)
ijutika 'jauzika, saltoka'	«Mutikoak ijutika urduri, eta haien behelaldean baso-sail oso bat (...) ke eta garretan suntsitzen ari.»	(65)
ilaje 'ile multzoa'	«Ralphék atzera bota zuen bere ilaje horaila...»	(22)
ilauna 'errekina edo errauts	«Behinola enbor-oskol izandako ilaun zorrotz haiek belauaren atzekaldean ziztatzen ere sentitu zituen...»	(178)
ilunbista 'ilunabarra, iluntzea'	«Ralphék umeari so, ilunbista hartan...»	(129)
ilunbistaratu 'argi urriarekin ikusi edo so-	«Ralphék burua atzera egin eta Rogeren aurpegi iluna ilunbistaratu zuen han erpinean.»	(255)
ingira 'kezka, errezeloa'	«...esan izan baliote, sinetsi egingo zukeen inolako ingira eta susmorik gabe.»	(90)
inguruabarrak 'egoera, baldintzak'	«... inguruabarrak hain larriak izan ez balira, besteei atsegintasuna irudituko zitzaiekeen...»	(190)
inkariotsu 'faltsua, hipokresiazkoa'	«...azken hau irribarre inkariotsuz berak ere txalo egiten bazekiela erakusten ari baitzen.»	(55)
inki-manka 'zalantzan, duda-mudatan'	«Huraxe zen Ralphék Jack inki-manka somatzen zuen estreineko aldia...»	(180)




iraizezko 'azalekoa, arina'	«Ondoren, eztenkada zuzena, iraizezko itxuradun galdera gordina...»	(176)
iraizi 'bota, jaurtiki'	«...Txerriren aurrean paratu zen tente, bere ilea atzera iraiziz ...»	(193)
iratzeki 'erantsi'	«Potzoloa orpoz orpo iratzeki zitzaion...»	(12)
iraurri 'lurrean hedatu edo zabaldu'	«Denak erne baina gantz-hestea iraurrien gainean euliek zegiten burrunba besterik ez zen aditzen han.»	(201)
irauzi 'eratzia, ebakiz betea'	«Simonek sastraken aurkako borroka une batez eten eta arnasaldia hartu zuen. Aurpegia irauzia zeukan.»	(101)
irazki 'tamaina'	« Irazkiaren araberako sailkapena, Ralphengandik behera, mailaz mailakoa zen...»	(89)
iro 'sua bizteko erregai lehor-lehorra'	«Sam da Erik bikiek aurkitu zuten lehenik halako iro aukerako bat...»	(57)
irozkai 'euskarria, zutabea'	«Ralphek, esku bata irozkai gisa erabiliz, bestearekin beherantz sakatu zuen...»	(21)
irri-mirrika 'aldizka barre eginez'	«Simon bera ere apur bat irri-mirrika zutitu zen.»	(33)
irri-mirrika 'irri isekariak eginez'	« Irri-murrikak han-hemenka, eta epaixkako begiradak.»	(119)
irrikarkara 'barre-zantzoa'	«—Hago isilik, Potzolo. Irri-karkara sortu zen.»	(30)
irrikatsu 'antsiatsu'	«So egin zien inguruko aurpegi irrikatsuei .»	(33)
iruntzi 'bestekaldea, atzekaldea'	«...palmondoek halako sabai orlegi bat zuten eratua, zeinaren iruntzia aintziratik islada-multzo dardartzit josia ageri baitzen.»	(16)
iskirioz 'isekaz'	«—Jarraitu nahi ez baduk —esan zuen ahotsak iskirioz ...»	(178)
istakatu 'zeinuz imitatu, antzeztu'	«Jackek istakatu egin zituen haren negar-murrinak eta ihesi baldarra...»	(107)
istargitsu 'sugarrezko distiraz'	«Hantxe zetorkion animalia, oldar bizian (...) letaginak istargitsu ...»	(167)
istargitu 'sugarrezko distirak egin edo	«...eguzkiaren kiskaldurak are beztuagoa zuen Simon, izerdiarekin batera istargitzen zuen txigor-kolore sakon bateraino.»	(82)
istil 'potxingo, ur putzua'	«Piztia hondartza zurbilaren gainean zetzan kizkurturik eta haren inguruko istila apur-apurka gero eta hedatzenago.»	(225)
itzalgaizka 'ezkutuka, isilean'	«Gero, akuilua zut, itzalgaizka jo zuen aurrera.»	(73)
itzalgaizkatu 'beldurtzen hasi, kikildu'	«Gailentasun unformatu hark eta Merridewren ahotsari zerion larderia zakarrak itzailgaizkatua zeukaten.»	(29)
itzatu 'iltzatu, sartu, barneratu'	«Ralphek lurrean itzatu zituen atzamarrak.»	(289)
ixtailu 'ixteko edo lotzeko parte'	«Gerrikoaren ixtailua askatu, galtzak eta galtzontziloak beherantz zirgatu eta...»	(14)
izpil 'orbana'	«...malda-behera leunago bat, zuhaitzez jantzia, han-hemenka izpil edo pikor zurigorritz zipristindua...»	(41)
izulauorritu 'izugarria, ikaragarria'	«Gero, bien artean pentsamendu izulauorritu bat eta bera besterik ez bailuten...»	(146)




jabaldura 'baretasuna, lasaitasuna'	«Jana eta segurantziaren jabaldura ahogozatzen ari bide ziren.»	(272)
jaregin 'askatu, soltatu'	«...mordo bat koko (...) beren txurtenetatik jaregin ziren.»	(93)
jarki 'aurre egin, erasoari eutsi'	« Jarki zen piztia nolabait, hautsi zuen itxitura...»	(224)
jas 'molde ona, bizitasuna'	«Johnny, berriz, lerdena zen, ile horaila eta jaseko mutikoa berez.»	(90)
jaurt egin 'esetsi, eraso'	«Rogerek bete zuen urdearen lana, kurrink eta jaurt eginez Jacki, eta honek hura txuliatuz.»	(223)
joaira 'korrontea'	«...arnasa hartu zuen astiro sudur-zuloak harrotuz, haize beroaren joaira jakinguratsu haztatuz bezala.»	(72)
kalapita 'astrapala, liskarra'	« Kalapita galanta sortu zen mutilen artean.»	(190)
kamatrika 'berbots zolia'	« Kalamatrika berehala sortu zen: —Altxorraren Irla...»	(51)
karabilkatu 'sigi-saga inguratu edo bildu'	«Gero makurtu eta aihenezko txanbihurduran barrena karabilkatu .»	(83)
karkara 'barre-zantzoa'	«... karkara haiek ankerki zaurtu zuten eta bere eserlekura erretirarazi abaildurik eta burumakur.»	(133)
ke kixkola 'kezko hodei kiribila'	«...ostertzeko ke-kixkola beti ere aurrera zihoala.»	(101)
keadar 'kezko multzo handia'	« Keadar beltz eta horizko multzoak oldar etengabea ari ziren itsas aldera barreiatzen.»	(65)
kilimakurka 'kilimak sortuz'	«Sudurzuloen azpian kilimakurka zebilzkion...»	(203)
kilimusika 'agur gisa burua makurtuz'	«... kilimusika makurtzen zen gauza hura salbu.»	(182)
kirika 'zelatatzen, ikusmiratzen'	«Samderik kirika ari ziren biak batera baso-ertzeko palmondo baten atzetik.»	(207)
kirrizkari 'suak kizkurtua'	«Enborretik altxa eta gorantzako bideari lotu zitzaion ilaun kirrizkarien artetik, beste biak atzetik zerraizkiola.»	(180)
kokorikatu 'kukubilko jarri'	«...aurrekaldean, ostera, ume txikiak, belatzean kokorikatuak .»	(47)
kontrakar 'kontrako argudioa edo arrazoa'	«Ralph lerdea zeriola zegoen. Haragiari uko egin nahi baina ordura arteko bere dieta murrizta (...) kontrakar ahulegia zitzaion noski.»	(109)
kukul orriak 'lorearen inguruko	«Berauen kukul-orriak apur bat atzeratu eta loreen erpin zuriak guriki jalgi ziren eguratsaren bila.»	(84)
kukuruxka 'kukubilko'	«Mutiko txikia Ralphen aurrean eseri zen kukuruxka ...»	(24)
lahardekari 'azal harrotua edo altxatua'	«...eta bere bizkar biluzia orban ilun eta eguzki-erredura lahardekariz nahasmasitua.»	(72)
lahardekatu 'azala harrotu edo kendu'	«Ralphek harriaren kontra ukabilez jo eta azkoskoak lahardekatu zituen.»	(160)
lakar 'latza, gozakaitza'	«Haien azpiko lurra belar lakarrez estalitako ezponda bat zen...»	(13)
lakaztu 'lazu, zakartu'	«...eta gorputzen azala, kresalak lakaztua ...»	(162)




lamadatsu 'argi-emalea, distiratsua'	«Lahar ilun usaintsuek hesitzen zuten itxitura osoa, zoko argi lamadatsua eratuz.»	(83)
lardatu 'zikindu, lohitu'	«Masailetakoz izerdia lardatu eta agudo kokatu zituen berriro betaurrekoak sudurraren gainean...»	(12)
lauhazka 'trosta, arrapalada'	«Egia ote suaren arrapalada zaldiaren lauhazka baino arinagoa dela?»	(288)
lauhazkaldi 'trostaldia, korrikaldia'	«...baso-iluntasunean berriro murgildu beharrik gabeko lauhazkaldi soil baten gisa ageri zitzairen.»	(39)
lauroinka 'lau oinean, katuka'	« Lauroinka zihoala, nekez, aihen eta enbor hautsien artean...»	(9)
lauskidura 'topaketa, elkar jotzea'	«Aurre egin zioten elkarri hondartza distiratsuan, beren grinaren lauskiduraz harrituta.»	(80)
lauspeatu 'desagertu, deuseztuz joan'	«Gero, ilunabar aldera, isladakeria lauspeatzen zelarik...»	(88)
laxo 'askaturik, solte'	«... kopeta aldera zintzilikatzen zitzaion ile laxo , beltz...»	(33)
leinuruka 'distiritzen'	«...bere betaurrekoetan ilunabarreko eguzki-printzak leinuruka ari.»	(59)
lekaro 'basamortua'	«...beraiek zeuden lekaro soiletik malkor eta arroil batean behera jaitsi eta lore-sailetan barrena...»	(42)
lekatsu 'itsaskorra, lirdinga'	«Jackek (...) eskuinarekin bere ile lekatsua marruskatzean...»	(106)
lentan 'ur azpian igerian'	«Ralphek bertan behera egin eta ur azpian lentan igerikatu zen begiak zabalik.»	(17)
lermatu 'ibitu, ahitu'	«Zeren han, irla uretaraino lermatzen zen ur-bazterren ondoan, beste irla bat baitzegoen...»	(41)
lertzo 'jario zikina'	«Iritsi ere egin zen gorpu zirtzikatuari zerizkion lertzoetaraino eta, lehena ukitzean...»	(226)
leviatan 'itsas munstroa (Bibliakoa)'	«Gero, leviatan lokartuak berriro arnasa egoztean, urak hazi...»	(155)
likin 'itsaskorra'	«...jantziak urraturik eta aurpegia frutazko morokil likin batez mazkildurik zekartzan.»	(24)
liku 'gunea, nukleoa'	«Garraren likua bizkor hedatu zen zuhaitzen tarteko hutsunean barrena...»	(65)
limuri 'irristakorra'	«Laster hasi zitzaion izerdi-patsa ile limuri luzean behera.»	(195)
limurtasun 'konbentzimendua'	«Baina, grinarik eta limurtasunik handieneko une-unean, bere burmuineko maratila hura itxi egin zitzaion bat-batean...»	(239)
lixtu 'tua, txistua'	«—Nola ateratzen zioan soinua oskolari hire lagun horrek? — Lixtua botako balu bezala egin...»	(22)
lokamutsa 'amesgaiztoa'	«— Lokamutsa noski —esan zuen Ralphek—, lotan ibiltzea.»	(126)
lotsagorritu 'lotsaren lotsaz gorritu'	«...bat-batean lotsagorritu egin zen...»	(78)
luto 'sakona, grabea'	«...putz egin zuen maskorrean, baita puzker-soinu lutoa eragin ere.»	(23)
makera 'txerriemea'	«Saldotik hamabost metrotara gelditu zen Jack, eta besoa luzatuz makera seinalatu.»	(197)




makestu 'pitzatua, koskaduna'	«...Jackek bertatik edan, ertz makestu haren gainetik Txerri eta Ralphengandik begirik kendu gabe.»	(220)
makotu 'arku forma hartu'	«Palmondo-aldaskak, makoturik , bultza egin zion maskorrari itsas landareen artetik at.»	(21)
malkorska 'haitz txiki maldatsua'	«...enbor erori baten gainean eseri zen arretatsu, aintzira aldera jaisten zen malkorskatik hurbil...»	(20)
manu oneko 'esanekoa'	«Jiraerdi eman eta arin abiatu zen, baita besteak ere handik berehala berari jarraika guztiz manu-oneko .»	(197)
marraska 'animalien zaratotsa'	«Dantzari hasi eta haren barrea marraska odolgosea bihurtu zen.»	(95)
marro 'hots lastimagarria'	«Txerri marro eginez lurrera zarbaildu eta hantxe gelditu zen eserita.»	(106)
marruskatu 'gogor igurtzi'	«...aizto handisko bat farrastan atera zuen eta enbor baten kontra hura marruskatzeari ekin.»	(34)
mazela 'mendi magala'	«Zirko baten edo zirko-erdi baten tankera zuen goi-ordeka baten ertzean zeuden, mendiaren mazelan .»	(40)
mazkildu 'guztiz lohitua'	«Lenteak kendu eta Ralph luazatu zizkion (...) gero, haiek bere anorak mazkilduan garbitzen hasi zen.»	(12)
men egin 'norbaiten aginduetara jarri'	«—Mugi! (...) Men egin behar moztarroari, derrigorrez.»	(96)
moilo 'pilota formakoa'	«Hamasei oin Rogerengandik gora, mordo bat koko, rugby-baloien tamainuko moilo haritsu batzuk, beren txurtenetatik jaregin ziren.»	(93)
morkaitz 'harkaitz handia, labarra'	«...harik eta haitzak benetako morkaitz larderiatsu bihurtzen ziren toki batera iritsi arte...»	(172)
morokil 'nahastea'	«...jantziak urraturik eta aurpegia frutazko morokil likin batez mazkildurik zekartzan.»	(24)
muker keinuka 'zapuzkeriazko keinuak eginez'	«Mutil kozkorragoek muker-keinuka ari zelako erreparatu zioten lehenik ume txiki hari.»	(51)
mukuru 'gainez egin beharrean'	«...harkaitzetako landare mota ezezagun batez mukuru beterik zegoen...»	(40)
must 'xurgada'	«...haitzariko bakoitza tirabirazko xulo banaz inguratzen, gero bat-batean hartaz jabetu must leun batez, eta aurrera jarraitzen.»	(225)
mutiri 'oldarkorra, zakarra'	«Berrito isildu ziren. Simon erne, Ralph sinesgogor eta mutiri samar.»	(78)
muxinaldi 'negarrezko eta mainazko	«Percival, muxinaldia bukatuta, jolasera itzuli zen, malkoek ordurako hondarra begietatik kenduta.»	(91)
nahasmahas 'ordenarik gabeko pilaketa'	«Beste mutil beltzaran bat (...) sastraka arteko nahasmahasa banandu eta plataformaraino etorri zen.»	(25)
nahasmasitu 'inolako ordenarik gabe betea'	«...eta bere bizkar biluzia orban ilun eta eguzki-erredura lahardekariz nahasmahasitua .»	(72)
narritatu 'exzitu, biztu'	«Orain, ikusi ez ezik ikutu ere egin zitekeen zerbait zen maskorra eta Ralph ere narritaturik zegoen.»	(21)
negar-murrinak 'negarrak eta mainak'	«Jackek istakatu egin zituen haren negar-murrinak eta ihesi baldarra...»	(107)
nerabezaro 'haurtzaroaren hurrengo aldia'	«...bestalde, nerabezaroa oraindik iritsi gabea izaki, adin honetako baldarkeriarik ere ezagun ez.»	(14)
nirrotu 'txitxildu, piska bat itxi'	«Begiak nirrotu eta itzulinguru osoan arakatu zuen ostertza.»	(79)




ñirñirkari 'distiratsua'	«...begiak txitxildurik so zegion ur ñirñirkariari .»	(13)
odoldatzatu 'odol gogortzen hasia'	«Biki biek eusten zioten urdeari, berau zabuka eta harkaitz gainera odolgatzatuzko tanto beltzak isurtzen ari.»	(103)
oilaur 'larruazaleko koskol handia'	«...eta eskubiko belaunean oilaur handia egina zitzaion.»	(227)
oldeka 'kantitate handian'	«...hondarra airera jaurtitzen hasi zen oldeka ...»	(91)
oleska 'agurka'	«Eguzki jaioberriari oleska ari bailitzaion...»	(185)
orban 'larruazaleko mantxa'	«Inork ez zuen berrikusia harako mazusta koloredun jaiotzetiko orban hura.»	(128)
oreiztoa 'oreztaz (pekaz) betea'	«Aurpegi ximurtu eta oreiztoa zuen...»	(28)
orizto 'orezta, peka'	«...Jacken aurpegiko oriztoak umilaziozko gorridura batek estali zituen.»	(32)
orpoz orpo 'hurbil-hurbiletik'	«Potzoloa orpoz orpo iratxeki zitzaion...»	(12)
ortzakatu 'izurrak egin, tolestu'	«...jauzkailuaren uhalak noiz txirikordatuz noiz ortzakatuz ...»	(142)
osin 'putzua'	«...halako moldez non osin luze sakon bat eratua baitzen hondartzan...»	(17)
otseski 'ertza, soslaia'	«...hain astiro higitzen ziren uhin sakonen otseski xahuei beha.»	(172)
otx 'aienea, min-adierazpena'	«Ralphek urdailean Jacki eta honek otx .»	(262)
paldoturik 'makila batek zeharkatua'	«Mutilak atzera-pausua egin eta burua hantxe geratu zen paldoturik , odol-xirripa makilan behera zeriola.»	(201)
perlesia 'elbarritasuna'	«Beldurrak baino areago, perlesiak jota zegoen...»	(181)
pikaintsu 'krema antzekoak'	«Han goian, (...) hodeiak zeuden, irlatik bertatik jalgiak zirela ziruditen dorre handi puztuak, urdinabar, pikaintsu ...»	(202)
pikardatu 'zipristindua, orbanez betea'	«Krema ilun kolorekoa zen maskorra, han-hemenka zenbait ikuttu xurigorritz pikardatua .»	(22)
pikor harri 'granittoa (harri mota)'	«... pikor-harri zurigorritzko plataforma handi bat zen berau...»	(16)
piltzartu 'zarpaildu'	«Handik bere galtza piltzartuak jaso eta jazten hasi zen...»	(98)
pindar 'txinparta'	«...barrurantz porrokatu zen txondorra, handik gorantz pindarrezko zuhaitz handi bat jalgi (...) zelarik.»	(61)
pirrintari 'distiratsua'	«Maskorra isilik, letagin pirrintari bat zirudiela...»	(24)
pizar 'kaxkar batzuk, banaka batzuk'	«Zoru harritsuazko metro pizar batzuk besterik ez...»	(154)
putinkatu 'astindu, salto bizi eta urduriak	«Bat-bateko haizexka batek iharrosi zuen palmondoen zirrinda, hostailak putinkatu eta kulunka eraziz.»	(93)
saiheskara 'zeharka, alde baterantz	«Haize indartsuaren erauntsiak saiheskara jauserazten zuen orain euria...»	(225)




sakailatu 'hondatu, suntsitu'	«Bera zihoan gidari eta bera hasi zen aurrena, berezko eskubidez bezala, sastrakak sakailatzen .»	(175)
sakaidura 'suntsidura, soilunea'	«Erroitz eta troketatik harantza, sakaidura bat nabari zen zuhaitzetan...»	(42)
saki 'koska, marka'	«—Utziko al didak heure aiztoa, Ralph, neurearen kirtenean saki bat egiteko?»	(103)
saldo 'aldra, taldea'	« Saldotik hamabost metrotara gelditu zen Jack, eta besoa luzatuz makera seinalatu.»	(197)
sarrakio 'laborria, izua'	«Borreroaren sarrakioa zatekan Rogeri.»	(265)
senperren 'ahalegin handia'	«...eta Mauriceren antzezpena, zerriaren senperrenak irudikatuz lantza are gehiago sar ez zekion...»	(200)
sopa egin 'ur gainean boteak egin'	«Harria (...) Henryren eskuinaldetik bost bat metrotara sopa egin eta uretara erori zen.»	(93)
sor eta lor 'aho zabalik'	«Roger ere zain zegoen (...) baina, Henry xomorro garden haiekin sor eta lor zegoela oharturik...»	(92)
soraio 'hoztasunez'	«—Ixo—esan zuen Ralphek, soraio , eta ondoren maskorra altxatu.»	(31)
sorbatz 'tresna zorrotzen ahoa'	«...eta ganibetaren sorbatzak distiraka beso hezurtsu haren erpinean.»	(44)
soslai 'ertza, perfila'	«...mendiaren soslai galantak han goian itzaturiko zulo beltzean izan ezik.»	(179)
soslaidura 'marra, ertza'	«Eguzkiaren ezti-koloredun errainuen soslaidura gero eta murriztagoa zen.»	(84)
teink egin 'tiratu'	«Mutil horaila gelditu eta galtzerdiei teink egin zien gorantz...»	(9)
tenkatu ----'atxekia'	«...bihotzaren taupadek alkandora tenkatua iharroska zerabilkioten.»	(25)
tentuz 'zuhurtziaz, senez'	«Ralph bere burua trabatik tentuz askatu eta atera zen nolabait adarren artetik.»	(12)
tilin-tilinka 'hots metalikoz'	«Honen betaurrekoak saltatu eta harkaitzetan behera tilin-tilinka .»	(106)
tinkun-tankun 'dorpeki, astuntasunez'	«Urde baten gorpu sabelustua taketetik zintzilik, bikiak lur malkartsuan gora nekez aurreratu-ahala tinkun-tankun zabukari.»	(102)
tokor 'enbor handia'	«Egur-meta hain ustela zegoen (...) ezen tokor osoak ere grinatsuki errendatzen baitzitzaizkien gorantz (...)ugar hori haiei.»	(60)
trenkada 'horma mehea, tabikea'	«...bazihoan lasterka oraindik beraren eta aintziraren bitartean altxatzen zen zuhamuzko trenkada hartarantz.»	(13)
tronpoilo 'hantura, handitua'	«Ralphek bere masail puztuko tronpoiloak berriro begia estal ziezaion amore eman eta mintzatu zen...»	(248)
trostaz 'zaldien abiada biziaz'	«Ralphek, ordea, jaiki eta eskuin aldera jo zuen trostaz .»	(16)
tupustuka 'bazterrak joz'	«Harkaitzarra ezbaian geratu zen (...) eta airean mugitu eta amildu zen, tupustuka , binbilika, jauzika, burrunbaka...»	(39)
txanbihurdura 'sokazko nahaspila'	«Argi bila hain goraino igo beharrik ez zutenez gero, aihenek txanbihurdura handi bat ehundua zuten han...»	(83)
txanbihurtu 'behin eta berriz bihurtua'	«...Ralphengandik nola-hala urrundu, eta txaradi txanbihurtuaren erdian kukubilkatu zen...»	(12)



txantre 'eliz abesbatzetako arduraduduna'	«—Hori beti dabil txorabioka (...) Gibraltarren gauza bera egin zuen (...) baita maitinetan ere, txantrearen gainera.»	(29)
txapartegi 'sasitza'	« Txapartegi haren azpian, lurrak dardar leuna zegien oso...»	(288)
txaplata 'gogaikarria'	«Txerri, beti bezain txaplata , jaiki eta inguratu egin zitzaion berriro.»	(98)
txaradi berezko zuhaitz-landarezko	«...Ralphengandik nola-hala urrundu, eta txaradi txanbihurtuaren erdian kukubilkatu zen.»	(12)
txibista 'lakioa, lazoa'	«Aihenezko txibista bat bazen han, beronen kiribil bat adabegi batetik zintzilik.»	(71)
txingil 'aihen landarea'	«Zuhaitz handi bat (...), txingil bizkor batek (...) adabururaino aztaparka, bere kimu gorri-beilegiak (...) zerakuskiela.»	(83)
txirrian 'txorroka, ugari'	«Txerri ura txirrian zeriola osinetik atera eta hantxe gelditu zen...»	(18)
txirtxilatu 'zatika jausi, deuseztu'	«Egur gehiena hain ustelduta zegoen non heltzen ziotenerako txirtxilatu egiten baitzen...»	(57)
txitxildurik 'erdi itxirik'	«Mutil horaila baizadi aldera beha, begiak txitxildurik .»	(10)
txondor 'egur meta'	«Egur- txondor txiki bat atondu zuen, surtarako erregai.»	(144)
unama 'itsasuntziak lotzeko soka	«...aihenei zerizkien soka zintzilikariek itsasontzi hondoratuen unamak ziruditen.»	(83)
ur-hein 'ur-azala, ur-maila'	«Okotza ur-heinetik altxatuz mintzatu zen...»	(18)
uxuka 'erasokor, suminduraz'	«Ingurura begiratu zuen uxuka , besteei hura uka zezaten erronka eginez.»	(45)
uzkaili 'goitik behera irauli'	«Zakar eta baldarki uzkaili zituzten bikiak.»	(261)
uzkur 'lotsatia'	«Txerrik irriño uzkurra egin zuen...»	(15)
xalo 'apala, garbia'	«Johnyren erakusbide xaloari jarraikiz...»	(25)
xaxatu 'akuilatu, eragin'	«Isiltasun eta uzkurtasun hark xaxaturik , batzar osoak ekin zion lelo berari...»	(129)
xerlo-bakan 'adats bakarra, bildua'	«Gainerako guztiak txima-jario zeuden erabat, baina Txerriren ileak xerlo-bakan zirauen...»	(96)
xirripa 'txorroa'	«Ralphek Txerriren eskuetatik maskorra hartu eta ur- xirripa bat isuri zitzaion handik besoan behera.»	(22)
xixtaka egin 'zirikatu'	«Orduan denek Roberti xixtaka egin , eta honek haiei eraso-keinuka jolaskor.»	(168)
zanbuluka 'kulunka'	«...besteak geratu egin ziren, arnasestuka, izerditan, argi samin haren pean zanbuluka .»	(27)
zangar 'suharra, ausarta'	«Kantu-marmarreen zetozen, biki zangar biek arduratsuki garraioan zekarten dunbuilo baten inguruan.»	(102)
zangarte 'hankak sartzeko praken bi	«Mauricek zango biak galtzetako zangarte bakar batean sartu.»	(98)
zangarte 'zangokada, urrats luzea'	«...arroka eta errautsen gaindi zangarte gangar eta arriskutsuak emanez zetorren...»	(179)



zapartingarri 'barregarria'	«...Mauriceren antzezpena (...) hain izan zen zapartingarria non mutikoek barrez lehertu behar zutelata baitzirudien.»	(200)
zarbaildu 'abaildurik jausi'	«Ralph hondar gainera zarbaildu eta hantxe eserita...»	(192)
zarramazkatuak 'urrakadaz beteak'	«Belaun-buruak, gizen eta biluziak, arantzaz josiak eta zeharo zarramazkatuak zituen.»	(10)
zaurtu 'iraindu, zauritu'	«...karkara haiek ankerki zaurtu zuten eta bere eserlekura erretirarazi abaildurik eta burumakur.»	(133)
zeden 'kotxoa, harra'	«Egur gehiena (...) txirtxilatatu egiten baitzen ezpal, zeden eta hirodurazko erauntsi batean...»	(57)
zematzaile 'mehatxagarria'	«...beroa areagotua zela begitandu zitzaien, zama zematzaile bihurtzeraino...»	(19)
zerauntsan (adizkia) 'kolpeka, danbadaka zerabilen'	«...koralezko baizadiari oldarka zerauntsan apar zuria ageri zen...»	(13)
zetxezkien (adizkia) 'itsatsita, atxekirik zeuden'	«...koralezko baizadia eta gorenko bazterrei zetxezkien palmondo erkin bakanak flotatzen hasten ziren zerurantz...»	(87)
ziatasun 'garbiezaren hatsa'	«Besagainaz igurtzi zuen masaila, gatz eta izerdiaren usain garratza eta zikinaren ziatasuna usnatuz.»	(271)
zimaje 'ile nahasi multzoa, sapak'	«Guraizeak balitu ilea mozteko —atzera bota zuen zimaje —...»	(162)
zingulu-zangulu 'baldarki ibili'	«Roger zingulu-zangulu gazteluen erditik igaro, gazteluok hankapean hartuz, loreak lurpera ostikatuz...»	(90)
zinkulinka 'hasperenka, kexuz'	«Txerri zinkulinka hasi eta Simonek isiltzeko esan zion garratz...»	(102)
zinkurin 'hasperena'	«...egunaren ordu hartan intsektuen zinkuririk ere ez baitzen aditzen.»	(72)
zintzaka 'zintz egiten, muki hotsez'	«...Percival eta gainerakoen aditasuna erakarri zuen behintzat, eta hauek zintzaka eta barrezka hasi.»	(130)
ziper 'oinaze, tormentua'	«Narraz zeramatzan azkonen giderrek traba, eta berauen punta zorrotz horzkatuek ziper zeragioten.»	(198)
ziratu 'garbia, distiratsua'	«Ralph maskorra jarleku ziratutik hartu eta ezpainetaraino hurbildu zuen.»	(147)
zirga 'soka lodi sendoa'	«...honako zulo hau, beste harako hari aihenezko zirga batez estekatua...»	(38)
zirgatu 'tiratu, eraitsi'	«...galtzak eta galtzontziloak beherantz zirgatu eta halaxe, biluzik, hondartza eta ur itsugarriei begira geratu zen.»	(14)
zirkin 'mugimendu txikia'	«...zirikatu egin zituen xomorro gosezto haiek, berauen zirkinak kontrolatu nahian.»	(92)
zirrin-zarran 'arrastaka ibili'	«Gero, zakur baten gisa, zirrin-zarran lauroinka...»	(71)
zirrinda 'lur zati meharra'	«Palmondoen zapaldatik uretara bitarteko hondartza arranbelaren tankerako zirrinda mehe bat zen, itxuraz amaigabea.»	(13)
zirristaka 'irristatuz, labanduz'	«Mutil horailak harkaitzaren azkeneko metroak zirristaka jaitsi eta aintzira alderako bidea urratzeari ekin zion.»	(9)
zirrizta 'kezko edo urezko zutabea,	« Zirriztaren barrenaldea, (...) loditu eta ordura arte hari ziztrina besterik ez zena (...) keadar koipetsu bihurtu zen.»	(79)
zirriztadaka 'puzka, putz eginez'	«...luzaro samarrean jarraitu (...) zuen Ralph maskorrari zirriztadaka , beti ere barre-algara tartean.»	(23)



zirriztari 'zerbait dariola'	«Laster altxatu zen, eskuetan makeraren buru odol- zirriztaria zeukala.»	(201)
zirtakadura 'kraskadura-hotsa'	«...aditu zuen (...) zirtakadura ozenago bat, norbait zelofanezko xafla handiak tolesgabetzen ari bailitzan.»	(283)
zirtzikatu 'aldebanatu, sakabanatu'	«Indar ezezagunen batek erauziak eta zirtzikatuak bide zituen harkaitz-kubo haiek...»	(36)
zirtzilatu 'maiztu, ajatu, hariak'	«...haitz eta harri gorrien gaiset, mendi tontorreko arroka zirtzilatu nahas-mahaseraino.»	(142)
zizkolatsu 'ozenegia, sarkorra'	«...oktaba bat gorantz lerratu zen soinua, orro zizkolatsu bihurtuz...»	(23)
zoharditu 'argitasunez bete'	«Urre-ukitu bat agertu zen itsasoaren gainaldetik eta berehala zero osoa zoharditu .»	(184)
zoldatsu 'ugerdia, zantarra'	«...adaskek aldean zeraman anorak zoldatsua erabat urratu.»	(10)
zoldazu 'koipeztoa, ugerdia'	«Guraizeak balitu ilea mozteko (...) ile zoldazu hura mozteko alegia...»	(162)
zoritu 'heldu, umotu'	«Aldean fruitu multzo galanta zekarten, denak ere ongi zorituak .»	(194)
zotal-hustura 'lur zati iraulia'	«Haien azpiko lurra belar lakarrez estalitako ezponda bat zen, zuhaitz erorien nonnahiko zotal-hausturez urratua...»	(13)
zuhamu 'zuhaitz txikia'	«...bazihoan lasterka oraindik beraren eta aintziraren bitartean altxatzen zen zuhamuzko trenkada hartarantz.»	(13)
zuntz 'landarezko haria edo soka'	«...eguzki argizko orban biribilak etengabe higitzen hosto berdeen eta zuntz nabarren gaiset...»	(268)
zurkaiztu 'bermatu, deskantsatu'	«Zuhaitz handi bat, bazter batean eroria, zutik zirauten besteei iratxekirik zurkaizten zen...»	(83)
zuzikari 'dirdirkaria, aldakorra'	«...txinpartak eta argi zuzikarizko uhinak mendi tontorrerantz igortzen zituen bitartean.»	(145)